

PROMOZIOAREN BALDINTZAK ETA ZEHAZTAPENAK

PROMOZIOAREN ANTOLATZAILEA

Sociedad Deportiva Eibar, SAD enpresak, Ipurua kalea 2, 20600 Eibar helbidea duenak, eta A20039533 IFK, honako promozio hau antolatu du:

«**KIKEREN LEHEN KAMISETA**»

ARLOA

Parte-hartzaileek ARMAGINA NAIZ taldean izena emanda eduki beharko dute, hori egiteko klubak bere webgunean ezarrita dituen kanalen bidez. Izen-ematea promozio hau argitaratu aurrekoa edo ondokoa izan daiteke.

SARIA

Promozioaren saria honako hau izango da:

- SD Eibarreko jokalaria bezala aurkeztu zutenean Kikek jantzi zuen kamiseta.

PARTE HARTZEKO BALDINTZAK:

Honako hauek har dezakete parte promozioan:

- ARMAGINA NAIZ taldean izena eman duten eta dagokion urteko kuota ordaindu duten pertsona fisiko guztiak.

HONAKO HAUEK EZINGO DUTE PARTE HARTU:

- SD Eibarreko langileak, zuzenean edo beste pertsona batzuen bitartez (enpresaren soldatapeko langileak edo zuzendaritzako kideak eta haien senar-emazteak eta lehen graduako aurreko edo ondorengo ahaideak).

Parte hartu ezin duen pertsona batek irabazten badu, saria jasotzeko eskubidea galduko du eta parte hartzeko baldintzak betetzen dituen ordezkoren arteko lehenengoari emango zaio saria.

PARTE-HARTZAILEEN DATUEN EGIAZTAPENA

Parte-hartzaileen datuak edozein unetan egiaztatu ahal izango ditu SD Eibar promozioaren enpresa antolatzaileak, promozioan parte hartzeko eskatzen diren baldintzak eta zehaztapenak betetzen dituztela ziurtatzeko.

IRAUPENA Promozio hau 2016ko otsailaren 20ko goizeko 10:00etan hasiko da eta izena emateko azken eguna 2016ko martxoaren 7a izango da, eguerdiko 12:00etan.

PROMOZIOAREN PROZEDURA

Parte-hartzaile bakoitzari zenbaki bat esleituko zaio zozketarako. Zozketa random.org tresnaren bidez egingo da, bideoz grabatuko da eta irabazle ateratzen den zenbakiari dagokion parte-hartzaileak irabaziko du.

SD Eibarrek kudeatuko du parte-hartzaileen zerrenda eta egiaztatuko du irabazleak ARMAGINA NAIZ taldean izena eman duela eta urteko kuota ordaindu duela.

Izena emateko, erabiltzaile berriek honako hau egin beharko dute:

- Promozioaren oinarrietan eskaintzen den estekaren bitartez izena emateko web-orrira joan.
- ARMAGINA NAIZ taldean izena emateko formularioa bete eta urteko kuotari dagokion ordainketa egin.

Formulario horretan emandako datuak edozein unetan egiaztatu ahal izango ditu promozioaren enpresa antolatzaileak (SD Eibar), promozioan parte hartzeko eskatzen diren baldintzak betetzen direla ziurtatzeko.

Promozioaren sustapena SD Eibarren sare sozialen bidez egingo da.

IRABAZLEAREN HAUTAKETA ETA JAKINARAZPENA

Irabazlea ausaz hautatuko da promozioaren parte-hartzaileen artean, zozketa kudeatzeko aplikazioa erabiliz.

Irabazlea 2016ko martxoaren 8an hautatuko da, lehen irabazle bat eta ordezkari bat(zuk) aukeratuz.

Promozioaren parte-hartzaileen arteko irabazlea hautatu eta gero, promozioaren enpresa antolatzailea (SD Eibar SAD) harekin harremanetan jarriko da. 72 orduko epean ez balitz lortuko irabazlearekin harremanetan jartzea edo irabazleak sariari uko egingo balio, ordezkoak kontaktatzeari ekingo litzaioke.

SD Eibarrek irabazleari jakinaraziko dio bai saria jasotzeko nora joan behar duen bai promozioaren baldintzak betetzen dituela egiaztatzeko zer dokumentu aurkeztu beharko dituen.

Edonola ere, SD Eibar SADek egiaztatu egingo du irabazleak bete egiten dituela promozioan parte hartzeko eskatzen diren baldintzak.

SALBUESPENAK ETA MURRIZKETAK

Irabazleek emandako datuetan haiek behar bezala identifikatzea eragotz lezakeen akatsik egonez gero, **SD Eibar SADek** ez du inolako erantzukizunik hartuko bere gain.

Era berean, SD Eibarrek ez du erantzukizunik izango, baldin eta, Correos-en erruz, saria bidaltzerakoan hura galdu, hondatu, lapurtu edo eragina izan dezakeen beste edozer gauza gertatzen bada ere.

SD Eibar SAD enpresak, gainera, eskubidea izango du promozioaren manipulaziotzat edo faltsutzetzat jo daitezkeen ekintzak gauzatu dituzten pertsonen aurkako ekintza judizialak hasteko.

SD Eibar SADek kalte-galeren erantzukizun orori uko egiten dio, honako hauetakoren bat gertatzen bada: promozioan parte hartzeko erabiltzen diren zerbitzuak behin-behinean bertan behera geratzea edo ez funtzionatzea; erabiltzaileek horiek erabiltzerakoan iruzur egiten dela egotzea eta bereziki, baina ez bakarrik, Internet bidez erantzunak bidaltzeko web-orrialdeetan sartzerakoan arazoak egotea.

SD Eibar SAD enpresak eskubidea gordetzen du promozio hau behar bezala egitea ahalbidetuko duten aldaketak egiteko,

baldin eta bidezko edo ezinbesteko arrazoiak badaude eta horien eraginez ezinezkoa bada promozioa dokumentu honetan azaldu bezala egitea.

SD Eibar SADek promozioaren epealdia atzeratu edo luzatzeko eskubidea gordetzen du, baita dokumentu hau interpretatzeko ere.

DATUEN BABESA

Ohorerako, Norberaren eta Familiaren Intimitaterako, eta Norberaren Irudirako Eskubidearen Babes Zibilari buruzko maiatzaren 5eko 1/1982 Lege Organikoan jasotakoaren arabera, saria onartzeak **SD Eibar SADI** Lege horren 2. artikuluan aurreikusitako baimena espresuki ematea dakar. Baimen horren arabera, **SD Eibar SADek** irabazlearen izen-abizenak eta irudia erabili ahal izango ditu promozio honekin lotura duen edozein jarduera publikotan edo sustapen-ekintzatan, horregatik sariaz gain bestelako diru-ordainik edo onurarik jasotzeko eskubiderik izan gabe. Horri uko egiteak sariari uko egitea ere ekarriko du berekin.

Parte-hartzaileek ematen dituzten datuak konfidentziasunez tratatuko dira eta izaera pertsonaleko datuen fitxategi baten bilduko dira. **SD Eibar SAD** (helbide soziala: Ipurua kalea, 2) izango da fitxategi horren titularra eta arduraduna, helburua promozio hau kudeatzea izango delarik.

SD Eibar SADek bermatzen du Datu Pertsonalen Babesari buruzko 15/1999 Lege Organikoa, abenduaren 13koa, beteko dela promozio honen bidez bildutako datu pertsonalen tratamenduan, batez ere, parte-hartzaileen informazio-, sarrera-, zuzenketa-, uko egite- eta ezeztatze-eskubideei dagokienez.

SD Eibar SADek eskubidea gordetzen du promozio honekin lotutako publizitatean irabazlearen izena eta helbidea erabiltzeko.

DATUEN ONARPENA

Parte-hartze hutsak dokumentu honetako baldintzak onartzea dakar. Hortaz, norbaitek oinarrien zatiren bat onartzen ez duela adierazten badu promoziotik kanpo geratuko da eta, ondorioz, **SD Eibar SADek** ez du parte-hartzaile horrekiko konpromisoa betetzeko erantzukizunik izango.